

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

479

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 23koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailea izateko prozedura ezartzen duena, lan-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko arloan bitartekaritza-zerbitzua emateko.

Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 17.2 artikulua hau xedatzen du: «Autonomia Erkidegoetako Enplegu Zerbitzu Publikoek, beren eskumenak erabiliz, enplegu-politika aktiboen egikaritzapen eta garapenean eta lan-bitartekaritzaren kudeaketan beraiekin lankidetzan diharduten erakundeen jardunak zehazteko beharrezkoak diren neurriak diseinatu eta ezarriko dituzte».

Halaber, aipatutako 56/2003 Legearen 22.3 artikulua hau adierazten du: «Enplegu Zerbitzu Publikoek euren gain hartzen dute lan-bitartekaritzaren dimentsio publikoa, baina, halere, hitzarmenak, akordioak edota bestelako koordinazio-tresnak ezarri ahal izango dituzte beste erakunde eta enplegu-agentzia batzuekin, enplegua eskatzen dutenei enplegua ematea bultzatzeko helburuarekin».

Euskal Autonomia Erkidegoan, lan-bitartekaritza zerbitzua emateko kanpoko erakundeekin eginiko lankidetzak, 2014ko ekitaldira arte, abenduaren 23ko 326/2003 Dekretuaren babespean eginiko hitzarmenen bitartez artikulatu da. Enpleguaren arloan Eusko Jaurlaritzako sail eskuduna denaren eta erakunde horien artean enplegu-politika aktiboekin eta bitartekaritza-zerbitzuekin lotutako funtzioak autonomia erkidego honetara transferitu baino lehen sinatu ziren hitzarmen horiek. Transferentzia-datatik aurrera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua subrogatu zen posizio juridiko horretan.

Jarduera hasi zuenetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartu zuen lan-eskarien kudeaketa, baliabide propioak erabilita, eta, horrenbestez, kanpoko erakundeen lankidetzak-esparrua lan-eskaintzak kudeatu eta erregistratzera mugatu zen.

Lankidetzak hori 2014ko abenduaren 31n amaitu da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hitzarmen horiek denuntziatu ostean. Hori alde aurreko urratsa izan da, lan-bitartekaritzaren esparruan beste lankidetzak-eredu bat ezartzeko, 326/2003 Dekretuan araututa dagoen eredu ez bezalakoa.

Hala eta guztiz ere, bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bai urte hauetan lan-eskaintzak kudeatzeko jardueran lankidetzak eskaini duten erakunde batzuek interesa daukate zerbitzu hori ematen jarraitzeko, kontraprestazio ekonomikorik gabe. Nabaria da interes publiko handia dagoela ahalik eta lan-eskaintza gehien hartzeko eta horiek kudeatzeko, Lanbiden lan-eskaintzaile modura izena emanda dauden pertsonekin bitartekaritza-lana eginez. Erakunde autonomo honi dagokio interes horri erantzutea. Beste alde batetik, orain arte laguntzaileak izan diren erakundeek modu positiboan baloratzen dute Lanbideren tresna informatikoak, sistemak eta datu-baseak erabiltzea bitartekaritza-jarduerak egiteko. Jarduera horiek euren kabuz egin ditzakete, enplegu-agentzien kalifikazioa lortu eta gero.

Hori dela-eta, beharrezkoa da prozedura bat ezartzea, erakunde horiek eta gutxieneko betekizunak betetzen dituen eta hala eskatzen duen beste edozein erakundek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailearen izaera lortu ahal izateko, lan-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko.

Prestakuntza-zentro publikoen kasu berezian izan ezik (kasu hori justifikatuta dago, autonomia erkidegoko administrazio orokorrarenak direlako), enplegu-zerbitzu publikoaren eta erakunde laguntzaile horien arteko harremanen artikulazioa ezinbesteko baldintza hauetan oinarrituta dago: enplegu-agentzia bezala jarduteko gaituta egon behar dute eta euren lan-zentroak EAEn kokatuta egon behar du; horrez gain, kasu guztietan, beharrezko baliabide material eta giza baliabide egokiak izan behar dituzte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sistemara konexio efizientea egiteko eta erregistroarekin eta eskaintzen kudeaketarekin lotutako ekintzak behar bezala garatzeko.

Hori dela-eta, bitartekaritza-zerbitzua emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailearen izaera lortzeko prozedura ezartzen da ebazpen honen bidez, lan-eskaintzak kudeatzeko eta erregistratzeko jarduerarekin lotuta, baldintza hauekin:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da bitartekaritza-zerbitzua emateko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailearen izaera lortzeko prozedura ezartzea, lan-eskaintzak kudeatzeko eta erregistratzeko jarduerarekin bakarrik lotuta.

Ebazpen honetan xedatutakoaren ondorioetarako, lan-eskaintza izango da enplegu-emaile batek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egiten dion eskaera, zuzenean edo erakunde laguntzaileen bitartez, eskaintako lanpostua(k) betetzeko hautagaiei dagokienez.

2. artikulua.– Erakunde laguntzaileak.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaileak izan ahalko dira, lan-eskaintzak kudeatzeko eta erregistratzeko jarduerarekin lotutako bitartekaritza-zerbitzua emateko, ondoren aipatutako erakundeak, betiere enplegu-agentziak bezala jarduteko gaituta badaude eta euren lan-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badago, hori guztia Lanbideren erakunde laguntzailearen izaera lortzeko eskaera aurkeztu baino lehen:

a) Toki-erakundeak edota herri-administrazioen mendekoak diren edo nagusiki herri-administrazioen partaidetza daukaten erakundeak.

b) Tokiko garapeneko agentziak.

c) Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3.2 artikulua d), e), f), g), h) eta i) idatzi-zatietan jasotako hezkuntza-sistemako irakaspenak ematen dituzten prestakuntza-zentroak.

d) Enplegurako prestakuntza-zerbitzua ematerakoan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzaileak diren prestakuntza-zentroak.

e) Unibertsitateak.

f) Eskaeraren aurreko urtean gutxienez egiaztatutako 500 lan-kontratu frogatzen dituzten beste enplegu-agentzia batzuk. Egiaztatutako lan-kontratuak izango dira agentziek, euren jardueraren ondorioz, Gune Telematiko Erkideari jakinarazi dizkioten eta Enplegu Zerbitzu Publikoek baliozkotzat egiaztatu dituzten kontratuak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan dauden prestakuntza-zentro publikoei eta unibertsitate publikoei ez zaie eskatuko enplegu-agentzia bezala jarduteko gaituta egotearen betekizuna.

3.– Erakunde laguntzaileek beharrezko baliabide material eta giza baliabide egokiak izan behar dituzte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sistemarekin konexio efizientea egiteko eta hurrengo artikuluan aurrez ikusitako ekintzak garatzeko. Zehatz esanda:

– Erakundeak kontratatutako pertsona bat, gutxienez. Pertsona horrek Lanbideren prestakuntza egokia jasoko du, eskaintzaren kudeaketa egiteko aplikazio-sistema erabiltzeko. Pertsona horri aplikazio-sistema horretara sartzeko baimena emango zaio, hurrengo artikuluan aurrez ikusitako ekintzak egiteko.

– Jarduera egingo den zentroan edo zentroetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskaintzak kudeatzeko aplikazio-sistema behar bezala erabiltzea ahalbidetuko duen sistema informatikoa izatea, bai eta hurrengo artikuluan aurrez ikusitako ekintzak egiteko beharrezkoa den gainerako azpiegitura ere.

3. artikulua.– Erakunde laguntzaileek egin beharreko ekintzak.

Erakunde laguntzaileek jarduera hauek guztiak edo batzuk egin ahal izango dituzte:

a) Aldez aurretik jaso dituzten lan-eskaintzak erregistratzea.

Ondorio horietarako, hau ulertuko da:

– lan-eskaintzak jasotzeak hau esan nahi du: prozesu horren bidez, erakunde laguntzaileak identifikatu egiten du enplegu-emaile batek lanpostu bat edo batzuk bete behar dituela; orduan, enplegu-emailearengandik edo enplegu-emailea behar bezala ordezkatzeko duen beste norbaitengandik dagokion kudeaketa-eskaera jasotzen du, hautagaitzat proposatuko diren pertsonen izan behar duten lanbide-profila adierazita. Profil horretan ezin izango da bereizkeriazko betekizunik adierazi, kausa edozein izanda ere.

– lan-eskaintza bat erregistratzeak hau esan nahi du: prozesu horren bitartez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak horretarako gaitutako pertsona batek eskaintzak jasotzeko prozesuan lortu diren datuak kodifikatzen ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sisteman sartzen ditu. Horrela, lan-eskaintza berri bat sortzen da sisteman, betiere une bakoitzean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak horretarako adierazitako betekizunak betetzen badira. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskaintza bat erregistratzea eragotzi ahal izango du, bere ustez eskaintza horretan eskatzen diren betekizunek urratu egiten badituzte objektibotasunaren, gardentasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak.

b) Lan-eskaintzak kudeatzea, hau da, prozesu hauek guztiak egitea:

1.– Aldez aurretik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sisteman erregistratutako lan-eskaintza aztertzea, eta, hala badagokio, osatzea.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda daudenen artetik, une bakoitzean eskatutako lanpostuak betetzeko pertsona egokiak identifikatzea, eskaintza parekatzeko modu desberdinak erabilita. Modu horiek hurrengo artikuluan azalduko dira.

3.– Eskaintzako lanpostuetan sartzeko identifikatutako hautagaien prestasuna egiaztatzea, hala badagokio.

Prestasuna egiaztatzeko prozesua honetan datza: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak parekatze automatikoaren bidez lortutako hautagaien prestasunari buruzko informazioa jasotzen du, enplegu-emailearengana bidaltzeko edo harekin harremanetan jartzeko, lan-eskaintza zehatz baterako. Horrela, hautagaien erantzuna erregistratuko du, edo, hala badagokio, erantzun hori zergatik ezin izan den lortu.

Erakundeak egiaztapen hori ez egitea erabakitzen badu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak modu automatikoan egingo du, horretarako gaituta dituen bitartekoak erabilita. Erakundeak eskae-

ran adierazi beharko du prestasuna egiaztatzeko prozesua bere bitartekoak erabilia egingo duen, edo prozesu horri uko egiten dion, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egin dezan.

4.– Hautagai bakoitza enpresara bidali ostean, horren emaitza jasotzea. Emaitza jasotzeak hau esan nahi du: bete beharreko lanposturako egokitzapenari edo egokitzapen-ezari dagokionez, bidalitako hautagaiari buruz enpresak zein balorazio egiten duen eta horren arrazoia zein den jakitea, eta, horrez gain, hala badagokio, hautagaia kontratatu duten edo ez jakitea.

4. artikulua.– Lan-eskaintzak parekatzea.

1.– Lan-eskaintzak parekatzeak hau esan nahi du: prozesu horren bidez, lotura bat sortzen da lan-eskaintzaren eta hautatutako lan-eskariaren artean, eskaintako lanpostua betetzeko egokienak direlako. Edonola ere, prozesu hori objektibotasunaren, gardentasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioen arabera egingo da.

2.– Aurreko paragrafoan aipatu diren printzipioak aplikatzen direla bermatzeko, eskaintzen parekatzea egiteko jarraibide hauek aplikatuko dira:

2.1.– Parekatze-prozesu guztietan, hautatutako hautagaiak betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Lan-eskatzaille modura izena emanda egotea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, «alta egoeran» edo «bitartekaritzarekin eten-egoeran».

b) Enplegu-emaileak ezarritako nahitaezko betekizunak betetzea.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo erakunde laguntzaileak egingo dituen prestasun-egiaztapenen mende jartzea.

2.2.– Hautagaiak ondoren adierazten diren eratan parekatu ahal izango dira lan-eskaintzekin. Parekatzeko era hauek lan-eskaintzaren kudeaketaren edozein unetan batera erabili ahal izango dira:

a) Parekatze automatikoa: eskatutako betekizunen eta lan-eskatzaillearen ezaugarrien arteko konparazio informatiko automatikoaren bidez egiten da.

b) Hedapen bidezko parekatzea: lan-eskatzailleak bere borondatez aurkezten du bere burua hedapen-egoeran dauden lan-eskaintzetan. Lan-eskaintza baten hedapentzat ulertzen da hura ezagutzera emateko prozesua, berorri hautagaiak atxiki ahal izateko, eta gutxienez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren interneteko atarian argitaratzea. Lanbideek, horrez gain, idatzizko beste hedabide batzuk erabiltzea erabaki dezake.

c) Eskuzko parekatzea: hautagaiak lan-eskaintza bati eskuz esleitzean datza, baldin eta ondoko baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

– Eskaintzan eskatutako hautagaietatik gutxienez % 50 bidali izana.

– Aurreko parekatze automatiko batean lortutako hautagai guztien prestasuna egiaztatu izana.

– Hautagairik ez izatea, gutxienez parekatze automatiko bat egin ondoren, lanpostuari dagokion lurralde historikoaren «hautagaiak bilatzeko esparru» berarekin edo handiagoarekin, eta nahitaezko baldintza bakarra okupazioa bada.

Eskuzko parekatzearen bidez, lan-eskaintzari ezin izango zaio esleitu eskaintzan hautagai modura eskatutako pertsona-kopuruaren erdia baino gehiago.

5. artikulua.– Erakunde laguntzaileen betebeharrak.

Erakunde laguntzaileek obligazio hauek bete beharko dituzte:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailearen kalifikazioa lortzea ahalbidetu zioten betekizunei eustea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jarraibideak betetzea, eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko jarraitu beharreko prozedurei dagokienez.

c) Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik horri buruz ematen dizkioten jarraibideei lotzea datu pertsonalen tratamendua. Ondorio horietarako, ebazpen honen II. eranskinean jasotako konpromisoa sinatu behar du.

d) Zerbitzua doan ematea langile eta enpresentzat.

e) Hautagaiek ez badituzte betetzen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 231.1 artikulua c) eta g) idatzi-zatietan aurrez ikusitako betebeharrak, erakunde laguntzaileek horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

6. artikulua.– Baimena emateko prozedura.

1.– Erakunde laguntzailearen izaera lortzeko eskaerak Lanbideren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz) eta Lanbideren lurraldeetako enplegu-bulegoetan aurkeztu beharko dira, ebazpen honen I. eranskinean agertzen den eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren internet-atarian eskura egongo den eredu ofizialaren bidez.

Horrez gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

– Eskabidea sinatzen duen pertsonak daukan ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa, erakunde eskatzaileari dagokionez.

– Datu pertsonalen tratamenduari buruzko konpromisoa, ebazpen honen II. eranskinean jasotakoa, behar bezala sinatuta.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak hartuko du bere gain eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko ardura, eta Lanbide erakunde autonomoko zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

4.– Prozedura ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik aurrera. Epe hori igaro ondoren esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskabidea onartutzat joko da.

5.– Zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

7. artikulua.– Erakunde laguntzailearen izaeraren indarraldia.

Erakunde laguntzailearen izaera urtebeterako ematen da, ebazpenaren egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta gehienez ere beste urtebeterako luzatu ahal izango da, erakunde laguntzaile interesdunak eskatu ostean. Eskaera hori hasierako urtebeteko aldia amaitu baino hilabete lehenago egin beharko du, gutxienez.

8. artikulua.– Erakunde laguntzailearen izaera kentzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailearen izaera, lan-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko jardueran, edozein unetan kendu ahal izango da, arrazoi hauetakoren bat dela-eta:

- Izaera hori ematea ekarri zuten betekizunetakoren bat galtzen bada.
- Ebazpen honetan eta erakunde laguntzailearen izaera ematen duen ebazpenean aurrez ikusitako betebeharrak ez betetzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 23a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

2015eko otsailaren 2a, astelehena

I. ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAERA LORTZEKO
ESKAERA, BITARTEKARITZA-ZERBITZUA EMATEKO

1.– Erakunde eskatzailearen identifikazio-datuak.

Izena edo sozietatearen izena		IFZ/IFK
<input type="checkbox"/> Prestakuntza-zentro publikoa edo unibertsitate publikoa	<input type="checkbox"/> Enplegu-agentzia Agentzia zk.: _____	Agentzia-mota (2.1. art.) <input type="checkbox"/> a) <input type="checkbox"/> b) <input type="checkbox"/> c) <input type="checkbox"/> d) <input type="checkbox"/>

2.– Helbidea.

Helbidea		Telefonoa
Herria	Posta-kodea	Helbide elektronikoa

3.– Legezko ordezkariaren datuak (*).

Izen-abizenak	NAN/AIZ	Kargua
Telefonoa	Helbide elektronikoa	

(*) Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu.

4.– Eskaintzaren kudeaketaren aplikazio-sistemara sartzeko proposatutako pertsonen datuak.

NAN/AIZ	Izen-abizenak	Sinadura

5.– Prestasuna egiaztatzea (3.b) 3 art.).

<input type="checkbox"/> Erakundeak egiteko	<input type="checkbox"/> Lanbideak egiteko
---	--

Formulario honetan jaso den erakundearen izenean eta ordezkariaren izenarekin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatzen diot Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde laguntzaile izaera emateko, bitartekaritza-zerbitzua eskaintzeko, lan-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko jarduerarekin bakarrik lotuta.

_____, 2015eko _____aren ___(a)

Legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren sinadura eta erakundearen zigilua:	Lanbideko Sarrera-Zigilua

II. ERANSKINA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO KONPROMISOA. BITARTEKARITZA–ZERBITZUA EMATEKO JARDUNEAN LANBIDE–EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAERA LORTZEN DUTEN ERAKUNDEEK NAHITAEZ ONARTU BEHAR DUTE KONPROMISO HORI

Bitartekaritza–zerbitzua emateko jardunean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaile izaera lortzen duen erakundearen ardura izango da Lanbideren titulartasuneko datuak tratatzea, eta, ondorioz, konpromiso hauek hartzen ditu, Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako horren garapen–erregelamenduaren eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen baldintzetan:

1.– Xedea onartzea.

Honen bidez, erakundeak onartu egiten du datuak Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntzeko helburuetarako bakarrik erabiliko dituela, bitartekaritza–zerbitzua emateko, lan–eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko jarduerarekin lotuta; beraz, datu horiek ezin izango ditu beste helburu batzuetarako erabili.

2.– Datuen tratamendua.

Erakundeak fitxategiaren arduradunarengandik jasotako jarraibideen arabera tratatuko ditu Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuaren titulartasunekoak diren fitxategiei dagozkien eta jarraian aipatzen diren datuak:

– BITARTEKARITZAREN ETA ENPLEGUKO POLITIKA AKTIBOEN ESKATZAILEAK.

- Segurtasun–maila: altua.
- Xedea: Lan–bitartekaritza eta Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuaren politika aktiboak kudeatu eta sustatzea eta enpleguaren eta gizarte–zerbitzuen esparruko administrazioekin lankidetzan aritzea eta koordinatzea, gizarteratu eta laneratu daitezela lortzeko, helburu estatistikoak kontuan izanda.

– ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ZENTROAK.

- Segurtasun–maila: oinarritzakoa.
- Xedea: Enplegu– eta prestakuntza–zentroek Lanbiderekin izan beharreko lankidetzaren erraztea dagozkien esparruetan.

– LAN–ESKAINZAILEAK.

- Segurtasun–maila: Oinarritzakoa.
- Xedea: Lanbiden izena emanda dauden eta lanpostu hutsak eskaintzen dituzten enpresei lanpostu huts horiek betetzeko aukera emango dieten hautagaiak eskatzea.

Emandako datuak fitxategiaren arduradunaren sistema edo euskarrietara gehituko dira, eta ez beste sistema edo euskarri batzuetara.

Tratatzeak diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati (pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pribatua) komunikatu ahalko zaizkio, betiere fitxategiaren arduradunaren aldeko aurreko baimenarekin, eta hark, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. eta 21. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, interesdunaren aldeko aurreko baimena beharko du legeak hori eskatzen duen kasuetan.

Tratamenduaren arduraduna den erakundeak datuak beste xede batekin erabiltzen baditu edo konpromiso honen xedapenak bete gabe komunikatu edo erabiltzen baditu, tratamenduaren erantzule gisa hartuko da, eta modu pertsonalean erantzungo du egin dituen arau–hausteen gainean.

Erakundeak konpromisoa hartzen du bere instalazioetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eman dizkion datuak erabilgarri mantentzeko, bien arteko harreman juridikoak indarrean dirauen aldian. Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli behar ez dizkion edo gorde behar ez dituen euskarri guztiak suntsitu egin behar ditu.

3.– Eskaintza kudeatzeko aplikazio–sistemaren erabiltzaileak.

Erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Eskaintza kudeatzeko aplikazio–sistemaren erabiltzaileen zerrenda eguneratua izatea.

– Bitartekaritza–zereginen ardura daukaten guztiei jakinaraztea eskaintza kudeatzeko aplikazio–sistema sistema horren xedeetarako bakarrik erabiltzeko konpromisoa hartu dutela. Horrez gain, datuen konfidentzialtasunari buruz hartzen dituzten erantzukizunen berri ematea. Izan ere, datu horien gaineko sekretu profesionala bete behar dute, eta datuok gorde egin behar dituzte. Erakunde laguntzailearekin izandako harreman juridikoa amaitu ostean ere betebeharrak iraun egingo dute. Ondorio horietarako, baimendutako pertsonak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren segurtasun-araudia onartzeko konpromisoa sinatu beharko dute.

– Eskaintza kudeatzeko aplikazio-sistemaren erabiltzaile izaeraren baja eskatzea Lanbideri, pertsona hauen kasuan: erakundearen zerbitzuak emateari utzi dioten pertsonak eta aplikazio-sistemara sartzeko eskatzen duten zereginak egiteari utzi dioten pertsonak.

4.– Segurtasun–neurriak.

Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako datuen kontrola eta segurtasuna honako hauetan xedaturikoaren arabera arautuko dira: Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, lege organiko hori garatzeko erregelamendua (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartua), eta eranskin honi erantsitako «*Tratamenduaren arduradunak ezarri beharreko segurtasun neurriak*» agirian jasotako xedapenak.

5.– Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezerezteko eskubidea.

Datuak tratatzerakoan ukitutako pertsonak euren eskubideak baliatuta datuetan sartzeko, datuak ezerezteko eta datuak zuzentzeko egiten dituzten eskaerak fitxategiaren arduraduna den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari helaraziko zaizkio, ebatz ditzan.

6.– Kontrolatzeko ahalmenak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, fitxategien erakunde titularra eta fitxategi horien lagatzailea den aldetik, beharrezkotzat jotzen dituen auditoriak egiteko ahalmena dauka, informazioa bitartekaritza-zerbitzua emateko bakarrik erabiltzen dela egiaztatzeko, betiere lan-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko jarduerarekin lotuta.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaile izaera lortzen duen erakundeak onartu egiten du Lanbideren auditoria-organoak erabaki ditzakeen kontrol- eta gainbegiratze-jarduerak guztiei men egitea, lagatutako informazioa behar bezala lortu eta erabili dela egiaztatzeko, bai eta aplikatu beharreko baldintza arauemaileak betetzea ere.

7.– Konpromisoak ez betetzea.

Erakunde laguntzaileak adierazten du badakiela eta esanbidez onartzen duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edozein unetan eta alde bakarretik baliogabetu ahal izango duela erakunde laguntzailearen izaera, agiri honetan hartutako konpromisoren bat bete ez dela ikusten badu, edota auditoria–jarduerarako beharrezko lankidetzarik egon ez bada.

Hartutako konpromisoak betetzen ez badira, baimenik ez duten erabiltzaileak informaziora bidegabeki sartzen badira, agindutako zereginerako beharrezkoak ez diren transakzioak edo prozesuak esleitu badira edota lortutako informazioa ez bada behar bezala zaindu edo informazio hori ez bada sekretuan gorde, orduan, edozein motatako erantzukizunak eskatuko dira, zigor–erantzukizuna barne, eta, zehazki, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren VII. Tituluan ezarritakoak.

_____, 2015eko _____aren ___(a)

Legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren sinadura eta erakundearen zigilua.

TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK EZARRI BEHARREKO SEGURTASUN NEURRIAK

Segurtasun neurriak	Oinarrizko maila	Erdiko maila	Goi maila
Segurtasun agiria	<ul style="list-style-type: none"> – Segurtasun-araudia ezarri behar du, aplikazio-eremua, langileen eginkizun eta betebeharrak eta antolamenduaren prozedurak zehaztuz. – Egunean egon behar du araudiaren eta antolamenduaren inguruan. – Informatzeko betebeharra bete behar du, nola ardurapeko fitxategiei dagokienez hala, tratamenduaren arduraduna izanik, erabili beharreko fitxategiei dagokienez. – Interesdunari baimena eskatu behar dio beharrezkoa eta nahitaezkoa denean, kasu bakoitzaren eta egin nahi den datu-tratamenduaren arabera. – Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak gauzatzea errazteko betebeharra bete behar du. – Konfidentzialtasuneko nahitaezko klausula eta konpromisoak sinatu behar ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> – Segurtasuneko arduraduna edo arduradunak identifikatzea. – Aldian-aldean, agiria betetzen dela kontrolatzea. – Euskarriak berriz erabili edo baztertzear hartu beharreko neurriak. 	
Langileak	<ul style="list-style-type: none"> – Eginkizun eta betebeharrak argi eta garbi zehaztu eta dokumentatu behar ditu arduradunak. – Langileen artean, eragiten dieten arauak eta arau horiek ez betetzeagatiko ondorioak hedatu behar ditu. – Datu pertsonalak dituen dokumentazioa biltegiratzeko gailu seguruetan artxibatuta ez dagoen bitartean (artxibatu aurretik edo ondoren berrikusten edo izapidetzen ari direlako), dokumentazioaren ardura duenak uneoro zaindu beharko du dokumentazio hori, eta ez du utziko baimenik gabeko inork eskura dezan. 		
Gorabeheren erregistroa	<ul style="list-style-type: none"> – Gorabehera mota, noiz gertatu den, nork jakinarazi duen, nori jakinarazi zaion eta eratorritako ondorioak erregistratu behar ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> – Datuak berreskuratzeko prozedurak gauzatu direla, nork gauzatu duen, zer datu berritu dituen eta eskuz zer datu grabatu dituen erregistratzea. – Fitxategiaren arduradunak idatzizko baimena eman behar du datuak berreskuratzeko prozedurak abian jartzeko. 	

Segurtasun neurriak	Oinarrizko maila	Erdiko maila	Goi maila
Identifikatzea eta autentifikatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Erabiltzaile eta sarbide baimenduen zerrenda eguneratu behar du. – Pasahitzak kudeatzeko prozedurak eta pasahitzak aldatzeko aldizkakotasuna zehaztu behar ditu. – Pasahitzen iraungipena eta biltegiratze ulertezina. 	<ul style="list-style-type: none"> – Erabiltzaile oro identifikatzea eta baimena duela egiaztatzea ahalbidetuko duen mekanismoa ezarriko da. – Muga bat ezarriko da datuetan baimenik gabe sartzeko ahaleginak errepikatzeke. 	
Sartzeko kontrola	<ul style="list-style-type: none"> – Erabiltzaile bakoitzak bere eginkizunak gauzatzeko beharrezkoak dituen datu eta baliabideak bakarrik erabiliko ditu. – Aurrekoa ziurtatzeko mekanismoak egongo dira indarrean. Horiei esker, segurtasun-agirian baimendutako langileek soilik izango dute datuetan sartzeko baimena emateko aukera. (*) – Datu pertsonalak dituzten dokumentuak biltegiratzeko gailuek irekitzea eragotziko duten mekanismoak eduki beharko dituzte. (*) – Biltegiratzeko gailuen ezaugarri fisikoen ondorioz ezinezkoa bada horrelako neurririk hartzea, fitxategiaren edo tratamenduaren arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu, baimenik ez duten pertsonak sar ez daitezten. (*) – Datu pertsonalak dituen dokumentazioa biltegiratzeko gailu seguruetan artxibatuta ez dagoen bitartean (artxibatu aurretik edo ondoren berrikusten edo izapidetzen ari direlako), dokumentazioaren ardura duenak uneoro zaindu beharko du dokumentazio hori, eta ez du utziko baimenik gabeko inork eskura dezan. 	<ul style="list-style-type: none"> – Informazio-sistemak kokatuta dauden lokaletan sartzen diren pertsonak kontrolatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> (*) – Armairuak, artxibategiak eta automatizatu gabeko fitxategiak biltegiratzeko elementuak sarbide babestuko eremuetan kokatu behar dira, eta, eremu horietan sartzeko, ateak irekitzeko sistemaren bat, giltzak edo sistema baliokide bat erabili beharko da. (*) – Hori ezinezkoa bada, bestelako neurri alternatiboak baliatuko dira, segurtasun-agirian arrazoituko direnak. (*) – Baimendutako langileek soilik dute dokumentazioan sartzeko aukera.

Segurtasun neurriak	Oinarrizko maila	Erdiko maila	Goi maila
Euskarrien kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> – Biltzen duten informazio mota identifikatzea. – Inbentarioa. – Datuak biltegitratzea, eta sarbidea murriztea. – Fitxategiaren arduradunak baimendu behar du euskarri-irteera. (*) – Euskarri eta agiriak artxibatzeke irizpideek informazioa kontserbatzea, aurkitzea eta kontsultatzea bermatu behar dute, baita datuetan sartzeko, datuak zuzendu eta ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak ahalbidetu ere. 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskarrien sarrera-irteerako erregistroa. – Baztertu edo berriz erabili behar den euskarri baten informazioa ondoren erabiltzea saihesteko neurriak. – Mantentze-eragiketen ondorioz irten behar den euskarri batean biltegitratutako informazioa behar ez bezala berreskuratzea galarazteko neurriak. 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskarriak banatzean datuak zifratzea. (*) – Kopia egiteko edo agiriak kopiatzeko aukera izango da, baina segurtasun-agirian baimendutako langileen kontrolpean soilik. (*) – Baztertutako kopia desegin behar dira, informazioan sartzeko edo ondorenean berreskuratzea galarazteko moduan. (*) – Datu pertsonalak biltzen dituen dokumentazioa lekualdatzen den bakoitzean, informazioan sartzeko edo informazioa manipulatzeko galarazteko neurriak hartuko dira.
Babesteko eta berreskuratzeke kopia	<ul style="list-style-type: none"> – Datuak babesteko eta berreskuratzeke kopien prozedura egongo da indarrean. – Datuak berreraikiko direla bermatzen du, galdu edo suntsitu diren unean zeuden bezala utzita. – Babesteko kopia astean behin gutxienez egin behar da. 		<ul style="list-style-type: none"> – Babesteko kopia eta berreskuratzeke-prozeduren kopia, ekipoak dauden tokitik aparte gordeko dira
Segurtasun arduraduna		<ul style="list-style-type: none"> – Agiriaren neurriak koordinatu eta kontrolatu behar ditu. – Ez dakar berekin fitxategiaren arduradunak bere erantzukizuna eskuordetzea. 	
Benetako datuekin probatzea		<ul style="list-style-type: none"> – Benetako datuak erabiliko dira baldin eta tratatutako fitxategi motari dagokion segurtasun-maila ziurtatzen bada. 	
Auditoria		<ul style="list-style-type: none"> – Bi urtean behin gutxienez, barnekoa edo kanpoko. – Auditoria-txosten bat ekarriko du berekin, segurtasun-arduradunak aztertuko duena. 	
Sarbideen erregistroa			<ul style="list-style-type: none"> – Sarbide bakoitzaren datuak erregistratzea. – 2 urtez kontserbatzea. – Segurtasunaren arduradunak txostena egin behar du hilean behin.

Segurtasun neurriak	Oinarrizko maila	Erdiko maila	Goi maila
			(*) – Baimendutako langileek soilik izango dute dokumentazioan sartzeko aukera. (*) – Egindako sarrerak identifikatzea ahalbidetuko duten mekanismoak ezarriko dira, baldin eta hainbat erabiltzailek erabiltzeko moduko dokumentuak badira. (*) – Aurreko kasuan bildu ez diren pertsonen sarbideetarako, sarbide horiek erregistratu beharko dira, segurtasun-agirian adierazitako prozedurari jarraikiz.
Telekomunikazioak			– Datuen transmisioa zifratu behar da

Oharra: Izartxoarekin (*) adierazitako neurriak euskarri ez-automatizatuei dira bereziki aplikagarriak.